OSASUN SAILA

7083

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 1ekoa, Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariarena, Basurtuko ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren osaera aldatzeko dena.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariaren 2006ko azaroaren 23ko Ebazpenaren bidez, osaera-egiaztapena berritu zitzaion Basurtuko Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari (urtarrilaren 15eko EHAA, 10. zenbakia).

Batzordeko kide bat bere kargutik kendu eta berria izendatzeko Ospitaleak egin duen eskabidea jaso denez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoen akreditazioari buruz Osasun sailburuak 1994ko irailaren 28an emandako Aginduak (urriaren 24ko EHAA, 202. zenbakia) 3. eta 7. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorriz, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ángel Lorente Muro jauna, Zuzenbidean lizentziatua, Basurtuko Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoko kide modura izan duen kargutik kentzea.

Bigarrena.– Olga Bordegaray Amirola andrea, Zuzenbidean lizentziatua, Basurtuko Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoko kide izendatzea.

Hirugarrena.– Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasun sailburuordeari edo Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena ofizialki argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 1a.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria,
M.ª LUISA ARTEAGOITIA GONZÁLEZ.

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

7083

RESOLUCIÓN de 1 de diciembre de 2008, de la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria, por la que se modifica la composición nominal del Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Basurto.

Mediante Resolución de 23 de noviembre de 2006, de la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria (BOPV n.º 10 de 15 de enero), se concedió la renovación de la acreditación al Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Basurto.

Habiéndose recibido del Hospital solicitud para cesar a un vocal y nombrar nuevo vocal del Comité, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 3 y 7 de la Orden de 28 de setiembre de 1994, del Consejero de Sanidad (BOPV n.º 202, de 24 de octubre), de acreditación de los Comités Éticos de Investigación Clínica en la Comunidad Autónoma del País Vasco,

RESUELVO:

Primero.– Cesar a D. Ángel Lorente Muro, Licenciado en Derecho, como vocal del Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Basurto.

Segundo.– Nombrar a D.ª Olga Bordegaray Amirola, Licenciada en Derecho, nueva vocal del Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Basurto.

Tercero.– La presente Resolución surtirá efecto a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarto.– Contra la misma, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados formular recurso de alzada ante el Viceconsejero de Sanidad o la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria, en el plazo de un mes a partir de su publicación oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 2008.

La Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria,
M.ª LUISA ARTEAGOITIA GONZÁLEZ.